

GURE HAMAIKETAKOA



HELBUURUAK:

- ✍ Kontsumo ohiturak aztertu eta horien gainean eztabaidatzea.
- ✍ Kontsumo onuragarria ezagutzera eman eta bultzatzea, edota janari freskoak eta bertako produktuak erosi eta horien kontsumoa bultzatzea.



Ekintza honetan gela bakoitzeko umeek hamaiketakoa egiteko ematen dituzten produktuak aztertuko ditugu. Ikasle bakoitzak eman duena kontuan hartuta, ondorengo galdera hauek erantzungo ditu. Galdetegi hau gurasoekin bete dezake etxean:

✍ Zer eramaten duzu eskolara hamaiketakoa egiteko?

✍ Beti gauza bera eramaten al duzu?

✍ Nork erabakitzen du zer eramán? Zure gurasoek ala zeuk?

✍ Zeren arabera egiten duzue aukeraketa (egindako gosariaren arabera, osasun ikuspegitik, moda, erosotasuna, opariak, e.a)?

✍ Zerbait proposatzen al du ikastetxeak arlo honetan. (Galdetu gurasoei)

✍ Janari egokia dela uste al duzu?

✍ Pentsatu al duzu inoiz beste zerbait eramatea? Zergatik?

✍ Nola bilduta eramaten duzu eskolara?

✍ Zein ondorio ditu bilgarri mota horrek ingurumenean?



GURE HAMAIKETAKOIA

✍ Ba al duzu beste modurik hori eramateko? Nola?

✍ Bilgarria botatzeko ontzi egokirik ba al dago ikastetxean?

✍ Zer egiten da bertan jasotakoarekin?

Ondoren, gelan ikasleak taldetan banatuko dira hamaiketako aukerak baloratzeko. Egun horretan bertan ekarritako gauzak bana ditzakegu. Ondorengo taula hau jarraituz, talde bakoitzak hamaiketatako mota bat aztertu eta baloratuko du, osasunean eta ingurumenean dituen ondorioak kontuan hartuta: hamaiketakoia oso egokia, egokia, erdipurdikoa edo desegokia izan daiteke. Balorazio hauei buruzko komentarioak egin beharko dituzte. Adibidez, ogitartekoa janez gero, komenigarria da egunero berdina ez izatea.

Hamaiketakoia	Osasun aldetik	Bilgarririk ba al du	Bilgarri birziklagarria	Horren iragarkia	Oparirik
Fruita					
Ogitartekoa					
Gailetak					
Yogur likidoa					
Txokolatezko palmerak					
Bollycao					
Zukua					
Beste batzuk					

Ondoren, talde handian irakaslearen laguntzarekin, talde bakoitzeko bozeramaleak bere iritzia emango du hamaiketako horri buruz, zergatiak azalduz, guztien artean adostu edo ezeztatuz.

Bukaeran, norberak hasierako galdetegiko galderak erantzunda, pentsatuko du ea zerbait aldatu behar duen bere hamaiketakoan. Egokia izan daiteke, bestalde, erabaki hori etxean bere gurasoekin hartzea, eta hurrengo egunean ikastetxera erantzuna ekartzea.